Lehendakaria/Presidente
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal
Mª Aranzazu Arana Learte

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria
María Yeregui Hernández

**Resolución 4/2020 ebazpena**
Recurso 2/2020 errekurtsoa

Kontratazio Mahaiaren 2020ko otsailaren 3ko erabakiaren aurka, zeinaren bidez "Gipuzkoako toki administrazioetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatu eta indartzeko zerbitzuen" kontratazio prozeduratik kanpo utzi baitzen ARETÉ-ACTIVA SL enpresa (Espedientea: 2019328C0600), enpresa horrek kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuen, eta errekurtso horri dagokionez, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, 2020ko maiatzaren 12an, goian adierazitako kideak bertan direla, honako erabaki hau hartu du aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por ARETÉ-ACTIVA, S.L. contra el acuerdo de la Mesa de Contratación de 3 de febrero de 2020 por el que se la excluye del procedimiento de contratación de los servicios de "impulso y fortalecimiento de las políticas para la igualdad de mujeres y hombres en las administraciones locales de Gipuzkoa" (Expte 2019328C0600), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el 12 de mayo de 2020 con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENENGO**.- Ebazpen honen idazpuruan aipatutako erabakiaren aurka, ARETÉ-ACTIVA SLk kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuen, Auzitegi honen erregistroan 2020ko otsailaren 25ean aurkeztutako idazkiaren bidez.

**BIGARREN.-** Otsailaren 26an, Auzitegiak errekurtsoa bidali zion Diputatu Nagusiaren Alorreko Idazkaritzari, eta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak (SPKL), 56.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, kontratazio espedientea eta zegokion txostena eskatu zizkion.

**HIRUGARRENA**.- Otsailaren 28an, Auzitegiaren erregistroan sartu ziren kontratazio espedientea eta Diputatu Nagusiaren Alorreko idazkariaren

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal el día 25 de febrero de 2020, ARETÉ-ACTIVA, S.L. interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo citado en el encabezamiento de esta resolución.

**SEGUNDO.-** En fecha 26 de febrero el Tribunal remitió el recurso a la Secretaría del Área del Diputado General y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe.

**TERCERO.-** El 28 de febrero tuvieron entrada en el registro del Tribunal el expediente de contratación y el informe del Secretario del Área

txostena. Txosten horretan adierazten da aipatutako enpresa baztertzea ez dela desegokia, ez gehiegizkoa, ez neurriz kanpokoa.

del Diputado General en el que considera que la exclusión no es ni improcedente, ni excesiva, ni desproporcionada.

**LAUGARRENA**.- SPKLren 56.3 artikulua betez, errekurtsoa bidali zitzaien beste bi lizitatzaileei (AZ PROCESOS PARTICIPATIVOS SLU eta OREKA SAREA SL), bost egun balioduneko epean alegazioak aurkez zitzaten.

**CUARTO.-** En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, se dio traslado del recurso a los otros dos licitadores, AZ PROCESOS PARTICIPATIVOS S.L.U. y OREKA SAREA S.L., para que en el plazo de cinco días hábiles pudieran formular alegaciones.

Emandako epean, OREKA SAREA SLk alegazioak aurkeztu zituen, eta horien idazkia martxoaren 9an sartu zen Auzitegiaren erregistroan. Bertan adierazten duenez, bere ustez, ez dago errekurtsogileak aipatzen duen nahasmendurik Kontratazio Plataformara igo behar ziren artxiboen ordenari eta tituluei dagokienez.

En el plazo concedido ha presentado alegaciones OREKA SAREA S.L., cuyo escrito tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 9 de marzo, en el que considera que no ha lugar a la confusión pretendida por la recurrente en cuanto al orden y títulos de los archivos que había que subir a la Plataforma de Contratación.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Errekurtsoaren onargarritasuna

### Admisibilidad del recurso

**LEHENENGOA**.- Errekurtso berezi hau jarri da, hain zuzen, errekurtsogileak aurkeztutako proposamena 663.400,00 euroko (BEZik gabe) balio zenbatetsia duen zerbitzu-kontratua adjudikatzeko prozeduratik kanpo uzteko egintzaren aurka.

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra el acto de exclusión de la proposición presentada por la recurrente en el procedimiento de adjudicación de un contrato de servicios cuyo valor estimado es de 663.400,00 euros, IVA excluido.

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratazio arloko errekurtso berezi bat aurkez daiteke, hala xedatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44. artikuluak, 1 a) eta 2 b) apartatuetan, eta hura ebazteko eskumena Auzitegi honek dauka, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, 2010eko irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 a) y 2 b) del artículo 44 LCSP, y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**BIGARRENA**.- Errekurtsoa jartzeko legitimazioa du errekurtsogileak, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta errekurtsoa SPKLren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epean jarri da, kontuan hartuta aurkaratutako erabakiaren jakinarazpena 2020ko otsailaren 5ean egin zela.

**SEGUNDO.-** La recurrente está legitimada para interponer el recurso, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP y el recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP, si se tiene en cuenta que la notificación del acuerdo impugnado se efectuó el 5 de febrero de 2020.

## Auziaren mamia

**HIRUGARRENA**.- Diputatuen Kontseiluak 2019ko abenduaren 17an hartutako erabakiaren bidez, "Gipuzkoako tokiko administrazioetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak sustatu eta indartzeko" zerbitzuak kontratatzeko espedientea onartu zen, non administrazio klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoen agiria sartzen diren, eta, halaber, kontratua adjudikatzeko prozedura irekiari hasiera ematea xedatu zen.

Administrazio klausula partikularren agiriaren ezaugarrien taulako 3. apartatuan ezarritakoaren arabera, kontratua 3 sortatan banatzen da; beraz, enpresek sorta batean, bitan edo hiru sortatan aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak, baldin eta dagokion sortarako eskatzen diren kaudimen irizpideak betetzen badituzte:

1. sorta: Udalerri txikiei laguntzea emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak planifikatzen eta garatzen.

2. sorta: Gipuzkoako udalen arteko lan eremuak dinamizatzea eta kudeatzea, horien errealitate anitza kontuan hartuta.

3. sorta: Gipuzkoako udaletako langileentzako prestakuntza prozesu bat diseinatu, ezarri eta dinamizatzea, udal bakoitzaren errealitate anitza kontuan hartuta, udalerri bakoitzak bere administrazio prozedura arruntetan genero ikuspegia txerta dezan.

Kontratua esleitzeko irizpideak administrazio klausula partikularren agiriaren ezaugarrien taulako 19. atalean ezartzen dira:

1) Balio iritziaren bidez balioetsi beharreko irizpideak (49 puntu):

- Proposamen teknikoaren kokapen egokia kontzeptu eta arau esparruan: 9 puntu.

## Fondo del asunto

**TERCERO**.- Por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de fecha 17 de diciembre de 2019 se aprobó el expediente de contratación de los servicios de “impulso y fortalecimiento de las políticas para la igualdad de mujeres y hombres en las administraciones locales de Gipuzkoa”, que incluye los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas, y se dispuso la apertura del procedimiento abierto para la adjudicación del contrato.

Conforme a lo establecido en el apartado 3 del cuadro de características del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP), el contrato se divide en 3 lotes, de forma que las empresas podrán presentar ofertas en uno, en dos o en los tres lotes, siempre que cumplan los criterios de solvencia exigidos para el lote correspondiente:

Lote 1: Apoyo a los pequeños municipios en la planificación y el desarrollo de políticas para la igualdad de mujeres y hombres.

Lote 2: Dinamización y gestión de los espacios de trabajo entre los ayuntamientos guipuzcoanos, teniendo en cuenta la realidad diversa de los mismos.

Lote 3: Diseño, establecimiento y dinamización de un proceso de formación para el personal trabajador de los ayuntamientos guipuzcoanos, teniendo en cuenta la realidad diversa de los mismos, para que cada municipio integre la perspectiva de género en sus procedimientos administrativos ordinarios.

Los criterios para la adjudicación del contrato son los establecidos en el apartado 19 del cuadro de características del PCAP:

1) Criterios a valorar mediante juicio de valor (49 puntos):

- Adecuada ubicación de la propuesta técnica en el marco conceptual y normativo: 9 puntos

- Gipuzkoako errealitatea eta aurrekariak ezagutzea: 5 puntu.

- Lan proposamena: 20 puntu.

- Ebaluazioaren diseinua, ebaluazioa egiteko moduaren definizioa eta aurretiazko plangintza: 10 puntu.

- Udalek kontratuaren xede den zerbitzuan parte har dezaten sustatzeko proposamena: 5 puntu.

Gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten memoriak edo proposamenak baztertu egingo direla aurreikusten da.

2) Formulen aplikazioaren bidez balioetsi beharreko irizpideak (51 puntu):

1 eta 2 sortak:

- Prezioa: 45 puntu.
- Kontratua egikaritzeko ardura duten langileen esperientzia: 6 puntu.

3. sorta:

- Prezioa: 45 puntu.
- Kontratua egikaritzeko ardura duten langileen esperientzia: 2 puntu.
- Euskaraz lan egiteko gaitasuna: 4 puntu.

Administrazio klausula partikularren agiriaren 18., 19., 20. eta 21. klausuletan aurreikusitakoaren arabera, proposamenak hiru artxibo elektroniko hauetan aurkeztu behar ziren:

BAT zenbakia: Aurretiko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa.

BI zenbakia: Balio iritzi baten bitartez balioetsi beharreko dokumentazioa.

- Conocimiento de la realidad y de los precedentes de Gipuzkoa: 5 puntos.

- Propuesta de trabajo: 20 puntos.

- Diseño de la evaluación, definición de la manera de llevarla a cabo y su planificación previa: 10 puntos.

- Propuesta para el impulso de la participación de los ayuntamientos en el servicio objeto del contrato: 5 puntos.

Se prevé que serán rechazadas las memorias o propuestas que no logren alcanzar un mínimo de 25 puntos.

2) Criterios a valorar mediante la aplicación de fórmulas (51 puntos):

Lotes 1 y 2:

- Precio: 45 puntos.
- Experiencia del personal trabajador encargado de la ejecución del contrato: 6 puntos

Lote 3:

- Precio: 45 puntos.
- Experiencia del personal trabajador encargado de la ejecución del contrato: 2 puntos.
- Capacidad para trabajar en euskera: 4 puntos.

De acuerdo con lo previsto en las cláusulas 18, 19, 20 y 21 del PCAP las proposiciones debían presentarse en los siguientes tres archivos electrónicos:

Nº UNO: Documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos.

Nº DOS: Documentación a valorar conforme a un juicio de valor.

HIRU zenbakia: Formulen aplikazioaren bitartez balioetsi beharreko eskaintza ekonomikoa eta dokumentazioa.

Nº TRES: Oferta económica y documentación evaluable mediante la aplicación de fórmulas.

**LAUGARRENA.-** Lizitazioa kontratatzailearen profilean argitaratu ondoren, enpresa hauen eskaintzak jaso ziren Eusko Jaurlaritzaren lizitazio elektronikorako plataformaren bidez:

**CUARTO**.- Publicada la licitación en el perfil de contratante se recibieron ofertas, a través de la plataforma de licitación electrónica del Gobierno Vasco, de las siguientes empresas:

1. AZ PROCESOS PARTICIPATIVOS SLU: 1. eta 2. sortetarako eskaintza aurkeztu zuen.

2. OREKA SAREA SL: 1. eta 2. sortetarako eskaintza aurkeztu zuen.

3. ARETÉ-ACTIVA SL: 1., 2. eta 3. sortetarako aurkeztu zuen eskaintza.

1. AZ PROCESOS PARTICIPATIVOS S.L.U.: presentó oferta a los lotes 1 y 2.

2. OREKA SAREA S.L.: presentó oferta a los lotes 1 y 2, y

3. ARETÉ-ACTIVA S.L.: presentó oferta a los lotes 1, 2, y 3.

Otsailaren 3an, BI zenbakiko artxibo elektronikoa ireki zen, eta egiaztatu zen errekurtsogileak artxibo horretan sartu zuela, hiru sortei zegokienez, "IX. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKORAKO ETA FORMULA BIDEZ EBALUATZEKO ESKAINTZAKO BESTE ELEMENTUETARAKO EREDUA», HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan sartu behar zena; ondorioz, Kontratazio Mahaiak erabaki zuen aurkeztutako eskaintza baztertzea, eta kontratazio organoari proposatzea 3. sortaren lizitazioa huts deklaratu zezala, errekurtsogilearena izan baita sorta horretara aurkeztutako eskaintza bakarra. Erabaki horren aurka jarri da errekurtso hau.

En fecha 3 de febrero se procedió a la apertura del archivo electrónico nº DOS y se comprobó que la recurrente había incluido en este archivo respecto a los tres lotes el “ANEXO IX.- MODELO DE OFERTA ECONÓMICA Y DE LOS OTROS ELEMENTOS DE LA OFERTA EVALUABLES MEDIANTE FÓRMULAS” que debía haber sido incluido en el archivo electrónico nº TRES, por lo que la Mesa de Contratación resolvió excluir la oferta presentada así como proponer al órgano de contratación declarar desierta la licitación del lote 3, al haber sido la de la recurrente la única oferta presentada a este lote; acuerdo contra el que se interpone el presente recurso.

**BOSGARRENA**.- Lehenik eta behin, errekurtsogileak alegatu du, 39/2015 eta 40/2015 legeak indarrean jartzearekin batera, lizitazioak modu elektronikoan baino ez direla izapidetzen, eta, horretarako, erakunde kontratatzaileak eskaintzak aurkezteko kontratazio plataforma elektroniko bat jartzen duela lizitatzaileen eskura, eta, kasu askotan, baldintza-agirietan aipatutako jarraibideak ez datozela bat plataformak eskaintzen dituen aukerekin, eta horrek nahaste asko eragiten dituela.

**QUINTO.-** Alega en primer lugar la parte recurrente que con la entrada en vigor de las leyes 39/2015 y 40/2015 las licitaciones se tramitan exclusivamente de forma electrónica, para lo que la entidad contratante pone a disposición de los licitadores una plataforma electrónica de contratación para la presentación de ofertas, y que en muchos casos las instrucciones mencionadas en los pliegos no coinciden con las opciones que ofrece la plataforma, lo que da lugar a que se produzcan muchas confusiones.

Uste du A, B eta C gutun-azalak aurkezteko ordena aldatu egin dela Administrazioak berak,

Considera que el orden de presentación de los sobres A, B y C se ha alterado respecto de lo que

administrazio klausula partikularren agirian, eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren Lizitazio Elektronikoaren Sistemaren lizitatzaileentzako erabilera-eskuliburuan adierazitakoari dagokionez; gehitu du, halaber, artxiboak oso modu berezian aipatzen direla, eta, horrela, administrazio klausula partikularren agirian zehazten den BI zenbakiko artxibo elektronikoa bat datorrela 3. zenbakiarekin plataforma elektronikoan, eta administrazio klausula partikularren agiriaren HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa bat datorrela lizitaziorako gaitutako plataformako 2. zenbakiarekin; horrek guztiak nahasmena eragin dio eskaintza aurkezterakoan.

la propia Administración señala en el PCAP y en el Manual de uso para licitadores del Sistema de Licitación Electrónica de la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi; añade que los archivos se mencionan de una manera muy particular, de forma que el archivo electrónico nº DOS que se especifica en el PCAP se corresponde en la plataforma electrónica con el nº 3 y el archivo electrónico nº TRES del PCAP se corresponde con el nº 2 de la plataforma habilitada para la licitación; todo lo cual le ha inducido a error en la presentación de la oferta.

Bigarrenik, errekurtsogileak argudiatzen du ezen, aurreko baldintzak betetzen dituen 3. sortarako eskaintza bakarra dagoenez, ez direla urratzen berdintasunaren, gardentasunaren eta lehia librearen printzipioak, eta ezin diola inola ere eragin edo kalterik eragin hirugarren bati, formulen irizpideak aplikatzearen emaitza balio-iritziena baino lehenago jakiteagatik beste modu batean baloratu daitekeelako; eta gauza bera gertatzen da 1. eta 2. sorten kasuan, formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideek ez baitute eragozten balio iritziko irizpideen balorazio subjektiborik (positiboa edo negatiboa).

En segundo lugar aduce la recurrente que al existir una única oferta para el lote 3 que cumple los requisitos previos, no hay vulneración de los principios de igualdad, transparencia ni libre competencia, ni puede afectar o perjudicar de ninguna forma a un tercero por el hecho de que se pueda valorar de forma diferente al conocerse antes el resultado de la aplicación de los criterios de fórmulas que los de juicio de valor; y que lo mismo ocurre para los lotes 1 y 2 ya que los criterios a valorar mediante la aplicación de fórmulas no comprometen ninguna valoración subjetiva (positiva o negativa) de los criterios de juicio de valor.

**SEIGARRENA**.- Kontratazio organoak bere txostenean adierazten duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak, gainerako euskal administrazioek bezala, kontratazio espediente bat sortu behar du Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoen Lizitazio Elektronikoaren Sisteman, eta hark eskatutako datuak sartu behar ditu, egitura aldatzeko inolako aukerarik gabe; beraz, ezin da onartu gutun-azalak aurkezteko ordena aldatu dela dioen baieztapena. Azaldu duenez, administrazio erabiltzaileak sor dezakeen eremuetako bat gutun-azalaren izena/deskribapena da eta, beraz, nahasteak gutxitzeko, dagokion artxibo elektronikoaren izena edo erreferentzia sartu da eremu horretan, onartutako agiriaren arabera; horrela, bada, gaitasun eta kaudimenaren gutun-azala BAT zenbakiko artxibo elektronikoari

**SEXTO**.- El órgano de contratación indica en su informe que la Diputación Foral de Gipuzkoa, al igual que el resto de administraciones vascas, debe crear un expediente de contratación en el Sistema de Licitación Electrónica alojado en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi, introduciendo los datos que la misma solicita sin posibilidad alguna de modificar su estructura, por lo que no puede aceptarse la afirmación de que se ha alterado el orden de presentación de los sobres. Explica que dado que uno de los campos que puede crear la administración usuaria es la denominación/descripción del sobre, a fin de reducir equívocos se ha introducido en dicho campo la denominación o referencia del archivo electrónico correspondiente según el pliego aprobado, de

dagokio, formulen gutun-azala HIRU zenbakiko artxibo elektronikoari, eta balio iritzien gutun-azala BI zenbakiko artxibo elektronikoari.

forma que el sobre de capacidad y solvencia se corresponde con el archivo electrónico nº UNO, el sobre de fórmulas con el archivo electrónico nº TRES y el sobre de juicios de valor con el archivo electrónico nº DOS.

Gainerakoan, eta artxibo elektronikoak behar ez bezala aurkeztearen ondorioei dagokienez, txostenak SPKLren 139.2 eta 157. artikuluak aipatzen ditu alde batetik, proposamenak ireki arte isilpekoak direla ezartzen baitute, eta, bestetik, administrazio klausula partikularren agiriaren 18-21 bitarteko klausulak eta bere ezaugarrien taulako 19. apartatua, non hau adierazten den hitzez hitz: «*Baldintza teknikoak betetzen ez dituzten eta BIGARREN artxibo elektronikoan formula bidez balioztatu beharreko dokumentazioa (HIRUGARREN artxibo elektronikoa) sartzen duten lizitatzaileak lizitazio prozeduratik at utziko dira*». Halaber, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Auzitegi Administratibo Zentralaren ebazpen batzuen zati batzuk errepikatzen ditu, proposamenen sekretua eta lizitatzaileen tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak urratzeari buruzkoak; eta, ondorio gisa adierazten du ezen, baztertutako enpresarekin prozedura jarraitu izan balitz, guztiz urratuko litzatekeela enpresa lizitatzaileen dokumentazioak bata bestearen atzetik ezagutzeko bermea, eta, ondorioz, zalantzan jar litezke egindako balorazioen objektibotasuna eta lizitatzaileei eman beharreko tratu-berdintasuna.

Por lo demás, y en cuanto a las consecuencias de la presentación incorrecta de los archivos electrónicos, el informe invoca por un lado los artículos 139.2 y 157 LCSP, que establecen el carácter secreto de las proposiciones hasta el momento de su apertura, así como las cláusulas 18 a 21 del PCAP, y el apartado 19 de su cuadro de características, que textualmente recoge que *"se excluirá del procedimiento de licitación a aquellas licitadoras que no cumplan las condiciones técnicas exigidas y las que incorporen en los archivos electrónicos nº DOS documentación que deba ser objeto de evaluación mediante la aplicación de fórmulas (archivo electrónico nº TRES)"*. Y por otro lado, reproduce parte de algunas resoluciones del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales sobre la vulneración del secreto de las proposiciones y de los principios de igualdad de trato y no discriminación de los licitadores, para concluir que, de haber procedido a la continuación del procedimiento con la empresa excluida, habría quedado plenamente vulnerada la garantía del conocimiento sucesivo de las distintas documentaciones de las empresas licitadoras y, en consecuencia, cabría cuestionar la objetividad de las valoraciones realizadas y la igualdad de trato que debe darse a los licitadores.

3. sortara aurkeztutako enpresa bakarra dela eta ez liekeela hirugarrenei eragingo kontuan hartuta, txostenean adierazten da SPKLren 146. artikuluan eta administrazio klausula partikularren agiriaren 25.3 klausulan ezarritakoa ere urratu dela.

En relación al hecho de que se trata de la única empresa presentada al lote 3 y que no resultaría afección alguna a terceros, se indica en el informe que también ha habido un incumplimiento de lo establecido en el artículo 146 LCSP y en la cláusula 25.3 PCAP.

Azkenik, kontratua lizitatzeko Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren Sisteman sortutako espedientearen laburpena erantsi zaio txostenari, hura osatzen duten pantailen bidezkoa.

Finalmente se incorpora al informe un resumen del expediente creado en el Sistema de Licitación Electrónica del Gobierno Vasco para la licitación del contrato a través de las diferentes pantallas que componen el mismo.

**ZAZPIGARRENA**.- Administrazio klausula partikularren agiriaren 18.1 klausularen arabera,

**SÉPTIMO**.- Según la cláusula 18.1 del PCAP, las proposiciones se presentarán en los sobres o

proposamenak honako klausula hauetan adierazten diren gutun-azal edo artxibo elektronikoetan aurkeztuko dira. Administrazio klausula partikularren agiriko ezaugarrien taulako 19. apartatuan eta administrazio klausula partikularren agiriko 20.1 klausulan aurreikusitakoaren arabera, lizitatzaileek BI zenbakiko artxibo elektronikoa aurkeztu behar zuten, "BALIO IRIZPIDEEN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenburuarekin, eta bertan eskatutako dokumentazioa erantsita; eta horri erantsi behar zaio 20. klausularen 2. zenbakia, hau ezartzen duena: «artxibo elektroniko honetan ez da inolaz ere sartuko HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan joan behar duen informaziorik».

Bestalde, administrazio klausula partikularren agiriaren 21.1 klausularen arabera, eskaintza ekonomikoa eta formulak aplikatuz ebaluatu beharreko gainerako dokumentuak HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan sartu behar ziren.

Hala ere, errekurtsogileak BI zenbakiko artxibo elektronikoan sartu zituen eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez ebalua zitezkeen elementuak, zehazki, 1., 2. eta 3. sorten kasuan, langileen esperientzia, eta, 3. sortari dagokionez, langileek euskaraz lan egiteko duten gaitasuna, baina informazio hori HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan sartu behar zen.

**ZORTZIGARRENA.-** Errekurtsogileak adierazi du gorabehera hori gertatu dela proposamena bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu delako, Eusko Jaurlaritzak garatutako Euskadiko kontratazio publikoaren plataformaren bidez, non Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profila jasotzen baita. Zehazki, alegatu du dokumentazioa plataforman aurkezteko hurrenkerari dagokion espedientean aldatu egin dela Lizitazio Elektronikoaren Sistema erabiltzeko eskuliburuan eta administrazio klausula partikularren agirian adierazten dena, eta hori frogatzeko, bere errekurtsoarekin batera, 5. dokumentu gisa, sistema horren lizitatzaileentzako erabiltzailearen eskuliburua aurkeztu du.

archivos electrónicos que se indican en las cláusulas siguientes. Conforme a lo previsto en el apartado 19 del cuadro de características del PCAP y en la cláusula 20.1 del PCAP, los licitadores debían aportar el archivo electrónico nº DOS con el título “DOCUMENTACIÓN A VALORAR CONFORME A UN JUICIO DE VALOR” con la documentación allí exigida, a lo que añade el número 2 de esta cláusula 20 que *“en ningún caso podrá incluirse en este archivo electrónico información propia del archivo electrónico nº TRES”.*

Por otro lado, de acuerdo con la cláusula 21.1 PCAP la oferta económica y el resto de documentos a evaluar mediante la aplicación de fórmulas debían incluirse en el archivo electrónico nº TRES.

Sin embargo, la recurrente incluyó en el archivo electrónico nº DOS la oferta económica y los elementos evaluables mediante fórmulas, en concreto, la experiencia del personal trabajador para los lotes 1, 2 y 3, así como la capacidad del personal trabajador para trabajar en euskera respecto del lote 3, cuando dicha información debía haberse incluido en el archivo electrónico nº TRES.

**OCTAVO**.- La parte recurrente pone de manifiesto que se trata de una incidencia producida con ocasión de la presentación de la proposición por medios electrónicos, a través de la plataforma de contratación pública en Euskadi desarrollada por el Gobierno Vasco, donde se aloja el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Alega en concreto que en el expediente de que se trata el orden de presentación de la documentación en la plataforma se ha alterado respecto de lo que se señala en el Manual de uso del Sistema de Licitación Electrónica y en el propio PCAP, en prueba de lo cual aporta con su recurso, como documento número 5, el manual de usuario para licitadores del citado sistema.

Eskuliburua aztertuta, ikusi da, errekurtsogileak dioen bezala, plataformako gutun-azalen ordena ez datorrela bat administrazio klausula partikularren agirian aurreikusitakoaren arabera aurkeztu beharreko artxibo elektronikoen ordenarekin. Eskuliburuan, "Gaitasunaren eta kaudimenaren gutun-azala" identifikatzen da A gutun-azal gisa, "Formulen gutun-azala" B gutun-azal gisa, eta "Balio iritzien gutun-azala" C gutun-azal gisa; administrazio klausula partikularren agirian, berriz, balio iritzi baten arabera baloratu beharreko dokumentazioa BI zenbakiko artxibo elektronikoari dagokio, eta eskaintza ekonomikoa eta formulak aplikatuz ebalua daitekeen dokumentazioa HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan sartzen dira.

Analizado el manual se observa, como afirma la recurrente, que el orden de los sobres en la plataforma no coincide con el orden de los archivos electrónicos a presentar conforme a lo previsto en el PCAP. En el manual se identifica como Sobre A el “Sobre de capacidad y solvencia”, como Sobre B el “Sobre de fórmulas” y como Sobre C el “Sobre de juicios de valor”, mientras que en el PCAP la documentación a valorar conforme a un juicio de valor se corresponde con el archivo electrónico nº DOS y la oferta económica y documentación evaluable mediante la aplicación de fórmulas se incluye en el archivo electrónico nº TRES.

Kontratazio organoak, errekurtsoa dela-eta egindako txostenarekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren Sisteman sortutako espedientearen laburpena egin du, sistema hori osatzen duten pantailen bidez. Gutun-azalen kudeaketari buruzko pantailari dagokionez, haren egitura eta formatua jasotzen ditu, edukia bete gabe, eta hori da, hain zuzen, errekurtsogileak aurkeztutako erabiltzaile-eskuliburuan jasotzen dena; baina, jarraian, pantaila bera erakusten du administrazio klausula partikularren agirian jasotzen dituen hiru fitxategi elektronikoak aktibatu ondoren, eta argi eta garbi ikusten da gutun-azalei buruzko artxibo bakoitzaren "izena" eremuan honela identifikatzen direla: «Gaitasunaren eta kaudimenaren» gutun–azala 1. zenbakiko artxibo elektronikoarekin; «Formulen» gutun-azala 3. zenbakiko artxibo elektronikoarekin; eta «Balio iritzien» gutun-azala 2. zenbakiko artxibo elektronikoarekin, hori guztia administrazio klausula partikularren agirian aurreikusitakoaren arabera.

El órgano de contratación, junto con el informe elaborado con ocasión del recurso, realiza un resumen del expediente creado en el Sistema de Licitación Electrónica del Gobierno Vasco a través de las diferentes pantallas que componen el mismo. Respecto a la pantalla relativa a la gestión de sobres recoge su estructura y formato sin cumplimentar su contenido, que es la que se recoge en el manual de usuario aportado por la recurrente pero, a continuación, muestra la misma pantalla una vez activados los tres archivos electrónicos que contempla el PCAP; y se aprecia claramente que en el campo “denominación” de cada uno de los archivos relativos a los sobres se identifica el sobre de capacidad y solvencia con el archivo electrónico nº 1, el sobre de fórmulas con el archivo electrónico nº 3 y el sobre de juicios de valor con el archivo electrónico nº 2, todo ello de acuerdo con lo previsto en el PCAP.

**BEDERATZIGARRENA.-** SPKLren 1.1 artikuluak dio bere xedeetako bat dela bermatzea sektore publikoko kontratazioetan betetzen direla lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publizitatearen printzipioa, eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa. Zentzu berean, SPKLren 132.1 artikuluak dio kontratazio organoek lizitatzaileei

**NOVENO**.- El artículo 1.1 LCSP establece como uno de sus fines el de garantizar que la contratación del sector público se ajuste a los principios de libertad de acceso a las licitaciones, publicidad y transparencia de los procedimientos, y no discriminación e igualdad de trato entre los licitadores. En el mismo sentido, el artículo 132.1 LCSP dispone que los órganos de contratación darán a los licitadores y

eta hautagaiei tratamendu berdin eta ez baztertzailea emango dietela, eta haien jarduera gardentasunaren printzipioari eta proportzionaltasun printzipioari egokituko zaiela.

candidatos un tratamiento igualitario y no discriminatorio y ajustarán su actuación a los principios de transparencia y proporcionalidad.

Tratamendu berdintasunaren printzipioak esan nahi du lizitatzaile guztiak berdintasun egoeran egon behar dutela bai eskaintzak aurkezteko unean bai erakunde adjudikatzaileak eskaintza horiek balioesteko unean.

Este principio de igualdad de trato implica que todos los licitadores deben hallarse en pie de igualdad tanto en el momento de presentar sus ofertas como al ser valoradas éstas por la entidad adjudicadora.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, lizitatzaileen tratamendu berdintasunaren printzipioak eskatzen du proposamen guztiak administrazio klausula partikularren agiriko preskripzioen araberakoak izatea, lizitatzaile desberdinek aurkeztutako proposamenen arteko konparazio objektiboa bermatzearren.

Según la jurisprudencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea, el principio de igualdad de trato de los licitadores exige que todas las proposiciones sean conformes a las prescripciones del pliego de cláusulas administrativas particulares, con el fin de garantizar una comparación objetiva entre las proposiciones presentadas por los diferentes licitadores.

Horrela, SPKLk 139.1 artikuluan dioenez, *“Interesdunen proposamenek lizitazioa arautzen duten baldintza-agirien eta dokumentazioaren araberakoak izan beharko dute, eta haiek aurkezteak berekin dakar enpresaburuak klausula edo baldintza guztien edukia baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik edo erreserbarik gabe”.*

En este sentido establece el artículo 139.1 LCSP que *“las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna”.*

Horrez gain, artikulu bereko 2. apartatuan honako hau xedatzen da*: “eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da proposamenak ireki arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko”*, eta hori bera jasotzen du administrazio klausula partikularren agiriko 16.4 klausulak.

Además, el apartado 2 de este precepto establece que *“las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones”*, lo que también se recoge en la cláusula 16.4 del PCAP.

Bestalde, SPKLk honako hau xedatzen du 157.1 artikuluan prozedura irekiaren kasuan: *“Kontratazio-mahaiak 140. artikuluan aipatzen den dokumentazioa kalifikatuko du, zeina lizitatzaileek proposamena biltzen duenaz beste gutun edo artxibo elektroniko batean aurkeztu beharko baitute”.*

Por su parte el artículo 157.1 LCSP establece para el procedimiento abierto, respecto al examen de las proposiciones, que *“la Mesa de contratación calificará la documentación a que se refiere el artículo 140, que deberá presentarse por los licitadores en sobre o archivo electrónico distinto al que contenga la proposición”.*

Azkenik, 146.2 artikuluan beste hau dio: *“Nolanahi ere, eskaintzak formulak aplikatu hutsez kuantifika daitezkeen irizpideen arabera ebaluatzeko, lehenbizi, bestelako irizpideen arabera ebaluatuko dira, eta ebaluazio horren berri idatziz jasoko da”.*

Finalmente, dispone el artículo 146.2 que *“en todo caso, la evaluación de las ofertas conforme a los criterios cuantificables mediante la mera aplicación de fórmulas se realizará tras efectuar previamente las de aquellos otros criterios en que no concurra esta circunstancia, dejándose constancia documental de ello”.*

Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko

Para ello, el artículo 26 del Real Decreto

urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 26. artikuluak zera ezartzen du: *"balio iritzi baten arabera haztatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa, nolanahi ere, gainerako proposamenarekiko independentea den gutun-azalean aurkeztu behar da, haiek balioetsi aurretik ez ezagutzeko"*.

817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, establece que *"la documentación relativa a los criterios cuya ponderación dependa de un juicio de valor debe presentarse, en todo caso, en sobre independiente del resto de la proposición con objeto de evitar el conocimiento de esta última antes de que se haya efectuado la valoración de aquéllos"*.

**HAMARGARRENA.-** Azaldu den bezala, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak lizitazio publikoetan parte hartzeko ezarritako baldintzak errespetatzea ezartzen du, lizitatzaileen artean salbuespenik eta bereizketarik egin gabe, eta, SPKLren 139.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio klausula partikularren agiriaren 20. eta 21. klausulek zehatz-mehatz zehaztu zuten proposamenak aurkezteko modua.

**DÉCIMO**.- Como se ha expuesto, el principio de igualdad y no discriminación impone el respeto de las condiciones establecidas para participar en las licitaciones públicas, sin excepciones ni distinciones entre los licitadores, y, de acuerdo con lo dispuesto en el transcrito artículo 139.1 LCSP, tanto la cláusula 20 como la 21 del PCAP determinaron con exactitud la forma en que se debían presentar las proposiciones.

Hala ere, errekurtsogileak oker aldatu zuen BI eta HIRU artxibo elektronikoen edukia, eta alegatu zuen lizitazio elektronikoko plataforman aurreikusitako fitxategiak aurkezteko ordena ez datorrela bat Administrazioak administrazio klausula partikularren agirian zehaztutakoarekin.

No obstante, la recurrente erróneamente invirtió el contenido de los archivos electrónicos nº DOS y TRES y alega que es debido a la no coincidencia del orden de presentación de los ficheros previsto en la plataforma de licitación electrónica con el determinado por la Administración en el PCAP.

Hala ere, errekurtsogileak dioenaren aurrean, eta plataforman sortutako espedientearen pantailak aztertuta ikusten denez, lizitazio elektronikoko sistemak argi eta garbi deskribatzen zituen eremu bakoitzean sartu beharreko artxibo elektronikoak; beraz, datu horiek administrazio klausula partikularren agirian aurreikusitako ordenan ez aurkeztearen arrazoia ez da kontratazio organoak fitxategiak Plataforman aurkezteko ordena ustez aldatu izana.

Ahora bien, frente a lo mantenido por la recurrente y como resulta del análisis de las pantallas del expediente creado en la plataforma, el sistema de licitación electrónica describía con claridad los archivos electrónicos a incluir en cada uno de los campos, por lo que la falta de presentación de los mismos en el orden previsto en el PCAP no trae causa de una supuesta alteración por parte del órgano de contratación del orden de presentación de los archivos en la Plataforma.

Baliabide elektronikoen erabileraren esperientziak agerian uzten du konplexutasun teknikoak eta informatika gorabeherak sor daitezkeela; hori dela eta, ahalik eta arreta handienarekin erabiltzea eskatzen zaie operadoreei, are gehiago hainbat lizitatzaile biltzen dituen kontratazio publikoko prozedura batean eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko orduan.

La experiencia en el empleo de medios electrónicos demuestra las complejidades técnicas e incidentes informáticos que pueden plantearse, por lo que se exige a los operadores la mayor diligencia en su utilización, más si cabe en la presentación de ofertas y solicitudes de participación en un procedimiento de contratación pública donde concurren diversos licitadores.

Beraz, Plataformaren funtzionamendu txarra egiaztatzen duen frogarik ez dagoenez, errekurtsogileak bakarrik du artxibo elektronikoak oker aurkeztu izanaren erantzukizuna

Por tanto, en ausencia de prueba que acredite el mal funcionamiento de la Plataforma es sólo la recurrente la responsable de haber presentado erróneamente los archivos electrónicos.

**HAMAIKAGARRENA**.- Hori horrela izanik, aztertu egin behar dira HIRU zenbakiko artxibo elektronikoaren dokumentazioa BI zenbakikoan oker sartzearen garrantzia eta ondorioak, eta, horren arabera, balioetsi behar da ea justifikatuta dagoen errekurtsogilearen proposamena hiru sortetatik kanpo uztea.

**UNDÉCIMO**.- Siendo ello así, hay que analizar la relevancia y las consecuencias de la errónea introducción de la documentación del archivo electrónico nº TRES en el nº DOS, y, en atención a ello, valorar si está justificada la exclusión de la proposición de la recurrente de los tres lotes.

Horretarako, administrazio-auzitegien kontratu errekurtsoen doktrina gogoratzea komeni da, proposamenen sekretua urratzearen ondoriozko bazterketaren irmotasuna zehaztu baitu. Doktrina hori hainbat ebazpenetan jasotzen da, hala nola Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Auzitegi Administratibo Zentralaren maiatzaren 23ko 574/2019 zk. Ebazpenean, eta, doktrina horren arabera, baztertzeak ez du irizpide absolutua izan behar; aitzitik, irizpide hori erabili beharko da aldez aurretik ezagutzearen ondoriozko kutsadura gertatzen den neurrian, inpartzialtasunaren, objektibotasunaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak bermatzeko modurik ez dagoenean.

Para ello, interesa recordar la doctrina de los tribunales administrativos de recursos contractuales, que ha matizado la rotundidad de la consecuencia de la exclusión por violación del secreto de las proposiciones. En virtud de esa doctrina, recogida en numerosas resoluciones, como por ejemplo en la Resolución nº 574/2019, de 23 de mayo, del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales, la exclusión no ha de ser un criterio absoluto, sino que deberá operar en la medida en que tenga lugar la contaminación por conocimiento anticipado, de tal suerte que ya no puedan quedar garantizados los principios de imparcialidad, objetividad e igualdad de trato.

Ildo horretan, epai batzuek ondorio baztertzailearen automatikotasunik eza adierazi dute, eskaintzak aurkezteko baldintza formalak behar bezala ez betetzeagatik; izan ere, ondorio hori sortzeko, egiaztatu behar da ez-betetze horrek benetan urratu duela sekretua, eragina izan duela hirugarrenentzat, eta eragina izan dezakeela balio iritzien mende dauden eta kuantifikagarriak diren irizpideen balorazioan (Auzitegi Gorenaren 2009ko azaroaren 20ko epaia, 520/2007 administrazioarekiko auzi errekurtsoan emandakoa; eta Auzitegi Nazionalaren 2012ko azaroaren 6ko epaia, 92/2012 administrazioarekiko auzi errekurtsoan emandakoa).

En este sentido, algunas sentencias han declarado la falta de automaticidad del efecto excluyente como consecuencia del cumplimiento defectuoso de los requisitos formales de presentación de las ofertas, pues para la producción de ese efecto se exige la comprobación de que dicho incumplimiento realmente ha vulnerado el secreto, ha tenido trascendencia para terceros y ha podido influir en la valoración de los criterios cuantificables sujetos a juicio de valor (sentencias del Tribunal Supremo de 20 de noviembre de 2009, dictada en el recurso contencioso-administrativo 520/2007, y de la Audiencia Nacional de 6 de noviembre de 2012, dictada en el recurso contencioso-administrativo 92/2012).

Antzeko argudioekin, Estatu Kontseiluak, uztailaren 11ko 670/2013 Irizpenean, honako hau

Con similares argumentos el Consejo de Estado en su Dictamen 670/2013, de 11 de julio,

jakinarazi zuen:

*«Egindako azterketa laburretik bi ideia atera daitezke: lehenengoa, proposamenen sekretuaren garrantzia, ez berez helburu gisa, baizik eta bata bestearen atzetik dokumentazioa ezagutzeko berme gisa, kuantifikazioa egiterakoan balio iritzi baten mende dauden irizpideei dagokienez, eta automatikoki ebalua daitezkeen parametroei dagokienez, betiere balorazioaren objektibotasuna eta lizitatzaileen tratu-berdintasuna bultzatzeko; eta, bigarren, dokumentazioa aurkezteko baldintza formalak betetzen ez dituzten edo behar bezala betetzen ez dituzten eskaintzak baztertzean dauden inguruabarrak ponderatzeko beharra (dela dokumentazioa gutun-azal irekietan dagoelako, dela gutun-azal bateko informazioa beste gutun-azal batean oker sartu delako), kontuan hartuta bazterketa justifikatuta dagoela baldintza horiek ez betetzeak edo behar bezala ez betetzeak, lizitazio publikoa egin arteko proposamenen sekretua barne, balorazioaren objektibotasuna eta lizitatzaileen berdintasunezko tratamendua kaltetzen dituenean, sekretu horren bidez babestu nahi diren balio gisa, baina bazterketa ez dagoela justifikatuta tratu-berdintasunaren printzipioa funtsean kaltetu ez denean».*

Halaber, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Auzitegi Administratibo Zentralaren 2018ko irailaren 7ko 784/2018 zk. Ebazpenak hau adierazten du: "*emandako datuek proposamenen sekretuan eta kontratazio organoen objektibotasunean eraginik ez dutenean eta lizitatzaileen arteko berdintasunari eragiten ez diotenean soilik onartu beharko dira proposamenak; horregatik dago horrelako kasuistika mota honetako kasuetan*".

**HAMABIGARRENA**.- Kasu honetan, esan bezala, errekurtsogileak BI zenbakiko artxibo elektronikoan sartu zuen eskaintza ekonomikoaren eta formulen bidez ebalua daitezkeen eskaintzaren gainerako elementuen ereduari buruzko IX. eranskina, eta eranskin hori HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan sartu behar zuen.

Horrek SPKLren 139. artikulua bi zentzutan urratzea ekarri zuen, batetik, baldintza administratibo berezien agiriak 20. eta 21. klausuletan ezartzen duen proposamenak aurkezteko modua ez errespetatzeagatik; eta, bestetik, Kontratazio Mahaiari informazioa aurreratzeagatik eta proposamenak ireki arte sekretua mantentzearen printzipioa urratzeagatik.

informó:

*"Del sucinto examen realizado cabe colegir dos ideas: primera, la importancia del secreto de las proposiciones, no como objetivo en sí mismo, sino como garantía del conocimiento sucesivo de la documentación relativa a los criterios cuya cuantificación dependa de un juicio de valor y de la referida a los parámetros evaluables de forma automática, de modo que se favorezca la objetividad de la valoración y con ello la igualdad de trato de los licitadores; y, segunda, la necesidad de ponderar las circunstancias concurrentes a la hora de excluir ofertas que incumplan o cumplan defectuosamente los requisitos formales de presentación de la documentación (bien porque ésta obre en sobres abiertos, bien porque se incluya erróneamente información propia de un sobre en otro distinto), en el bien entendido de que la exclusión está justificada cuando el incumplimiento o cumplimiento defectuoso de tales requisitos, incluido el secreto de las proposiciones hasta la licitación pública, menoscabe la objetividad de la valoración y el tratamiento igualitario de los licitadores como valores que se trata de preservar mediante dicho secreto, pero no lo está cuando no se haya visto afectado sustantivamente el principio de igualdad de trato".*

Así, como concluye la Resolución nº 784/2018, de 7 de septiembre, del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales, *"solo en aquellos casos en los que sea patente que los datos revelados no tienen influencia en el secreto debido de las proposiciones y la objetividad de los órganos de contratación, no afectando a la igualdad entre licitadores, será procedente admitir las proposiciones; de ahí la casuística existente en este tipo de supuestos".*

**DUODÉCIMO.-** En este caso, como ya se ha dicho, la recurrente incluyó en el archivo electrónico nº DOS el Anexo IX relativo al modelo de la oferta económica y de los otros elementos de la oferta evaluables mediante fórmulas, anexo que tenía que haber incluido en el archivo electrónico nº TRES.

Ello supuso una infracción del artículo 139 LCSP en un doble sentido: en primer lugar, al no respetar la forma de presentación de las proposiciones que exige el PCAP en las cláusulas 20 y 21; y, en segundo lugar, al anticipar información a la Mesa de Contratación y vulnerar el principio del secreto de las proposiciones hasta su apertura.

Horren guztiaren ondorioz, Kontratazio Mahaiak, eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez ebalua zitezkeen eskaintzaren elementuak aldez aurretik jakiteaz gain, formulak aplikatuz baloratu beharreko irizpideetan errekurtsogilearen proposamenari legozkiokeen puntuak ere kalkulatu ahal izan zituen; izan ere, hala ahalbidetzen zuten baldintza administratibo berezien agiriko ezaugarrien taulako 19.2) atalean irizpide horiek balioesteko aurreikusitako formulek:

Todo ello conllevó que la Mesa de Contratación no solo tuviera conocimiento de forma anticipada de la oferta económica y de los elementos de la oferta evaluables mediante fórmulas, sino que también pudiera calcular los puntos que corresponderían a la proposición de la recurrente en los criterios a valorar mediante la aplicación de fórmulas, pues así lo permitían las previstas en el apartado 19.2) del cuadro de características del PCAP para valorar esos criterios:

- Eskaintza ekonomikoa (45 puntu) formula honen bidez balioesten zen: 100 puntutik, 0 puntu emango zitzaion gehieneko prezioa berdintzen zuen eskaintzari, eta 2 puntu gehituko zitzaizkion % 1eko baja bakoitzeko. Horrela, gehieneko puntuazioa 100 puntukoa izango zen, salbu eta bajaren batek % 50 gaindituko balu; kasu horretan, 100 puntu emango zitzaizkion, eta gainerakoa interpolatu egingo zen.

- La oferta económica (45 puntos) se valoraba con la siguiente fórmula: sobre 100, se otorgaría 0 puntos a la oferta que igualase el precio máximo, incrementando 2 puntos por cada 1% de baja, siendo la puntuación máxima de 100 puntos, salvo que alguna baja superase el 50%, en cuyo caso se le otorgarían 100 puntos y se interpolaría el resto.

- Kontratua egikaritzeko ardura zuten langileen esperientzia balioesteko (6 puntu 1. eta 2. sortetan, eta 2 puntu 3. sortan), sortaren xedearekin lotura zuzena zuen eta behar bezala egiaztatuta zegoen lan bakoitzeko puntu bat ematea aurreikusten zen, baldin eta lana kontratuko lantaldea osatzen zuten profesionaletako batek egin bazuen.

- Para valorar la experiencia del personal trabajador encargado de la ejecución del contrato (con 6 puntos en los lotes 1 y 2, y 2 puntos en el lote 3) se preveía otorgar un punto por cada trabajo debidamente acreditado que tuviera relación directa con el objeto del lote, siempre y cuando el trabajo lo hubiera realizado una de las personas profesionales que integraban el equipo de trabajo del contrato.

- Euskaraz lan egiteko gaitasuna (4 puntu 3. sortan), Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila egiaztatzen zuten titulu ofizialak aurkeztuta egiaztatu beharrekoa, 0 punturekin balioesten zen lantaldearen % 20k baino gutxiagok egiaztatzen bazuen, puntu batekin (1) lantaldearen % 40k egiaztatzen bazuen, 2 punturekin % 60k egiaztatzen bazuen, 3 punturekin % 80k egiaztatzen bazuen, eta 4 puntu % 100k egiaztatzen bazuen.

- La capacidad para trabajar en euskera (4 puntos en el lote 3), que se debía acreditar mediante la presentación de los títulos oficiales que acreditasen el nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, se valoraba con 0 puntos si lo acreditaba menos del 20% del equipo de trabajo, con 1 punto si lo acreditaba el 40% del equipo, con 2 puntos si lo acreditaba el 60%, con 3 puntos si lo acreditaba el 80%, y con 4 puntos si lo acreditaba el 100%.

Beraz, **1 eta 2. sortetan**, non errekurtsogilearen proposamena beste bi lizitatzaileren proposamenekin batera aurkeztu zen, bistakoa da bere eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez ebalua daitezkeen eskaintzaren gainerako elementuak aldez aurretik ezagutzeak arriskuan jar zezakeela kontratazio organoaren inpartzialtasuna. Izan ere, une horretan jakin behar ez zen informazioa azalduz, balio iritziaren kutsadura-arrisku potentziala eragin zezakeen: BI zenbakiko artxibo elektronikoan, eskaintza ekonomikoa eta langileen esperientzia eta gaitasuna ezagutzera ematean, adjudikazio irizpide horren arabera sozietate errekurtsogileari legozkiokeen puntuak kalkula zitezkeen HIRU zenbakiko artxiboa ireki aurretik.

Por consiguiente, en los **lotes 1 y 2**, donde la proposición de la recurrente concurrió con la de otras dos licitadoras, es evidente que el conocimiento anticipado de su oferta económica y del resto de elementos de su oferta evaluables mediante fórmulas habría podido comprometer la imparcialidad del órgano de contratación. Y es que revelando información que no debía saberse en ese momento podría provocar un riesgo potencial de contaminación del juicio de valor: al revelar la oferta económica y la experiencia y capacidad del personal trabajador en el archivo electrónico nº DOS, podían calcularse los puntos que le corresponderían a la sociedad recurrente en virtud de este criterio de adjudicación antes de la apertura del archivo nº TRES.

Hain zuzen ere, hori saihesteko, baldintza administratibo berezien agiriko ezaugarrien taulako 19. apartatuak, adjudikazio irizpideak definitzean, lau aldiz ohartarazten du lizitazio prozeduratik kanpo utziko direla formulak aplikatuz ebaluatu behar den dokumentazioa BI zenbakiko artxibo elektronikoetan sartzen duten lizitatzaileak, HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan sartu behar zirenean; hori bera errepikatzen da baldintza administratibo berezien agiriko 25.2.3 klausulan.

Precisamente para evitarlo, el apartado 19 del cuadro de características del PCAP, al definir los criterios de adjudicación advierte hasta cuatro veces que se excluirán del procedimiento de licitación a aquellas licitadoras que incorporen en los archivos electrónicos nº DOS documentación que deba ser objeto de evaluación mediante la aplicación de fórmulas, que se debía incluir en el archivo electrónico nº TRES, lo que se reitera en la cláusula 25.2.3 del PCAP.

Horregatik, errekurtsogilea 1. eta 2. sortetatik kanpo uztea guztiz bat dator Zuzenbidearekin, kontratazio organoaren objektibotasuna eta inpartzialtasuna arriskuan jarri ahal izan direlako, bazekielako, balio iritziaren mende jarritako irizpideak balioetsi baino lehen, zein izango zen baztertutako lizitatzaileak lortuko zuen puntuazioa formulen bidez balioetsi beharreko irizpideetan.

Por ello, la exclusión de la recurrente de los lotes 1 y 2 se ajusta plenamente a Derecho, porque la objetividad e imparcialidad del órgano de contratación han podido ser puestas en compromiso, al conocer, con carácter previo a la valoración de los criterios sometidos a juicio de valor, cuál sería la puntuación de la licitadora excluida en los criterios evaluables mediante fórmulas.

**HAMAHIRUGARRENA**.- Epaitegi honen iritziz, ez da gauza bera gertatzen **3. sortan**, non ez baitzen lehiarik egon, aurkeztutako proposamen bakarra errekurtsogilearena izan zelako.

**DECIMOTERCERO**.- No ocurre lo mismo, a juicio de este Tribunal, en el **lote 3**, donde no hubo concurrencia porque la única proposición presentada fue la de la recurrente.

Kasu horretan, lizitatzaileak ez zuen bete pleguak ezartzen duen proposamenak aurkezteko modua, eta kontratazio organoak informazioa segidan jakitea urratu zuen.

En este caso, la licitadora también incumplió la forma de presentar las proposiciones, que establece el pliego, y vulneró el conocimiento sucesivo de la información por el órgano de

contratación.

Hala ere, adjudikaziodunaren proposamena sorta horretara aurkeztu zen bakarra izan zenez, Kontratazio Mahaiak eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez ebalua daitezkeen bere eskaintzaren gainerako elementuak ezagutzea, legez eta pleguen bidez aurreikusitakoa baino lehen, ezin zen tratu diskriminatzailea izan, eta ezin zion eragin ere lizitatzaileen arteko berdintasunari, ezta baloraziorako objektibotasunari ere, eta printzipio horiek dira, hain zuzen ere, eskaintzen sekretuak eta horiek aurkezteko ezarritako ordenak bermatu nahi dituztenak.

Sin embargo, dado que la proposición de la adjudicataria fue la única que se presentó a este lote, el conocimiento por la Mesa de Contratación de la oferta económica y de los otros elementos de su oferta evaluables mediante fórmulas, en un momento anterior al previsto legalmente y por los pliegos, no podía suponer un trato discriminatorio ni afectar a la igualdad entre licitadoras, ni tampoco influir en la objetividad para su valoración, siendo tales principios los que precisamente trata de garantizar el secreto de las ofertas y el orden establecido para su presentación.

Horregatik, Auzitegi honek uste du errekurtsogilea 3. sortatik kanpo uztea formalistegia dela, dokumentuak aurkeztean egindako akatsak ezin izan duelako arriskuan jarri irizpide subjektiboen ebaluazioaren objektibotasuna, hori ezin baita arriskuan egon proposamen bakarra delako.

Por ello, este Tribunal considera que la exclusión de la recurrente del lote 3 resulta excesivamente formalista porque el error en la presentación de los documentos no ha podido comprometer la objetividad en la evaluación de los criterios subjetivos, que no puede estar en riesgo al tratarse de una única proposición.

Ondorioz, dokumentazioa aurkezteko baldintza formalak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertzerakoan dauden inguruabarrak ponderatu beharrak eramaten gaitu, alde batetik, errekurtsoa puntu honetan onartzera, eta, bestetik, prozedura atzera eramatera, kontratazio mahaiak enpresa errekurtsogilea kontratuaren 3. sortatik kanpo uzteko erabakia hartu aurreko unera arte, aipatutako sorta adjudikatzeko prozeduraren izapidetzeak jarrai dezan.

En consecuencia, la necesidad de ponderar las circunstancias concurrentes a la hora de excluir ofertas que incumplan los requisitos formales de presentación de documentación nos lleva a tener que estimar el recurso en este punto, y a ordenar retrotraer el procedimiento hasta el momento inmediatamente anterior a la decisión de la Mesa de Contratación de excluir a la empresa recurrente del lote 3 del contrato, para que continúe la tramitación del procedimiento de adjudicación de dicho lote.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

## ERABAKITZEN DU

## ACUERDA

Zati batean baiestea ARETÉ-ACTIVA SLk jarritako kontratazio arloko errekurtso berezia, eta, ondorioz:

Estimar en parte el recurso especial en materia de contratación interpuesto por ARETÉ-ACTIVA, S.L. y, en consecuencia:

- baliorik gabe uztea Kontratazio Mahaiak 2020ko otsailaren 3an hartutako erabakia, errekurtsogilea kontratuaren 3. sortatik kanpo uzteari dagokionez

- anular el acuerdo adoptado por la Mesa de Contratación el 3 de febrero de 2020 únicamente en lo que se refiere a la exclusión de la

soilik;

- jarduketak atzera eramatea, baztertze hori gertatu aurreko unera, Kontratazio Mahaiak izapidetzen jarrai dezan kontratuaren 3. sorta adjudikatzeko prozedura; eta

- ez onartzea errekurtsoa gainerako guztiari dagokionez.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Dena den, prozedura legeetan aurreikusitako epeak etenda daude, hala xedatzen baitu, bigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan, 463/2020 Errege Dekretuak, martxoaren 14koak, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma egoera deklaratzekoak; hori dela eta, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jartzeko bi hilabeteko epea kontatuko da, kasu honetan, lege prozesaletan aurreikusitako epeak eteteak eragina izateari utzi eta hurrengo egun baliodunetik hasita, 16/2020 Errege Lege-Dekretuak, apirilaren 28koak, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko prozesu eta antolaketa neurriei buruzkoak, 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

recurrente del lote 3 del contrato;

- retrotraer las actuaciones al momento inmediatamente anterior a dicha exclusión para que la Mesa de Contratación continúe la tramitación del procedimiento de adjudicación del lote 3 del contrato; y

- desestimar el recurso en todo lo demás.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, dado que los plazos previstos en las leyes procesales están suspendidos en virtud de la disposición adicional segunda, apartado 1, del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, el plazo de dos meses para interponer el recurso contencioso-administrativo se contará, en este caso, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 2.1 del Real Decreto-ley 16/2020, de 28 de abril, de medidas procesales y organizativas para hacer frente al COVID-19 en el ámbito de la Administración de Justicia; esto es, a partir del día hábil siguiente a aquel en el que deje de tener efecto la suspensión de los plazos previstos en las leyes procesales.

**Donostia, 2020ko maiatzaren 12a / San Sebastián, 12 de mayo de 2020.**